

# ASTROTXOKOA

IZARRETAN ZEHAR BIDAIATZEN

Gazteei zuzenduriko astronomia programa da, gazteei astronomiarekiko interesa pizteko asmoz sortua, zientzia

honekin izan ditzaketen gaizki ulertutako kontzeptuak berreskuratzeko helburua duena.

## PLANETARIUMA

Nork ez du udako gauren batean ipar izarra bilatu?

Denok begiratu izan dugu zerua, izarrak, konstelazioak eta izar iheskorak bilatzeko asmoz.

Jarduera honetan planetario bat instalatu eta montatuko da, non izarrak, konstelazioak eta bestelako espazioko gertakariak ikusteko aukera izango dugun.

20 lagunentzat prestatuta bere 4,5 m. diametroan.



## KONSTELAZIOAK ETA IZARRAK

## JARDUERA OSAGARRIAK TAILERRAK

### ILARGIAREN FASEAK

Material desberdinak erabiliz, ilargiaren faseak ikusteko gurpil bat sortuko dugu, modu honetara, parte hartzailea guztiek jakin ahal izango dute ilargia zein fasetan dagoen, eta honela izar eta zeruari begiratzea sustatuz.



### ERROTAZIO ETA TRANSLAZIO MUGIMENDUA

Eskulan oso erraz baten bidez, jarduera honetan gure planetak bere baitan eta eguzkiaren inguruan egiten dituen bi mugimendu motak islatuko dira.



### EGUZKI SISTEMAREN MAKETA

Tamaina desberdinetako poliespan pilotak erabiliz, eguzki sistemako planetak egingo ditugu, gero kartulina beltz baten gainean eguzki sistema bera islatuko dugu, modu honetara planeten arteko distantziak, kokapenak eta mugimenduak ikusteko aukera izanaz.

